



**EBAZPENA, 2023KO OTSAILAREN 8KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILERIAREN KUDEAKETAKO ZUZENDARIARENA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILERIAREN KUDEAKETAKO ZUZENDARIAREN 2023KO OTSAILAREN 6KO EBAZPENEAN ANTZEMANDAKO AKATS BAT ZUZENTZEN DUENA. EBAZPEN HORREN BIDEZ, GIPUZKOAKO LURRALDE UNITATEAN IKUSKARITZAKO LANPOSTU BATERAKO DEIALDIA EGIN ZEN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA IKUSKARITZAN LANPOSTUAK ALDI BATERAKO BETETZEKO HAUTAGAIEN ZERRENDA ZABALDU ZEN.**

Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketa Zuzendariaren 2023ko otsailaren 6ko Ebazpenaren bidez, Gipuzkoako Lurralde Unitateko Ikuskaritzako lanpostu baterako deialdia egin zen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskaritzan aldi baterako lanpostuak betetzeko hautagaien zerrenda zabaldu zen.

Ebazpen horretan hutsak atzeman direnez, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, *“Administrazio Publikoek edozein unetan zuzendu ahal izango dituzte, ofizioz edo interesdunek eskatuta, beren egintzetako akats materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.”*

Kasu zehatz honetan, Deialdiaren Bigarren Ebazpen-zatiaren bigarren puntua zuzendu nahi du, bai euskaraz bai gaztelaniaz, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoaren hamargarren xedapen gehigarrian ezarritakoari egokitzeko.

Beraz, eman zaizkidan ahalmenen indarrez,

### **EBAZTEN DUT**

**Lehenengoa.-** 2023ko otsailaren 6ko Ebazpenaren bigarren ebatziaren bigarren puntuan honako hau zuzentzea:

Hau dioen lekuan:

*“Gutxienez zortzi urteko antzinatasuna izatea EAEko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoetan, hezkuntza-sistema publikoa osatzen duten ikastetxe eta mailletako edozeinetan, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoaren hamargarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.”*



Honako hau esan behar du:

*“ Gutxienez zortzi urteko antzintasuna izatea unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoetan, hezkuntza-sistema publikoa osatzen duten ikastetxe eta mailetako edozeinetan, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoaren hamargarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.”*

**Bigarrena.-** Ondorioz, eskaerak aurkezteko epea luzatu egiten da, **2023ko otsailaren 22ra arte, 23:59ra arte.**

### ERREKURTSOAK

Bide administratiboa bukatzen ez duen ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik aurrera, betiere Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluari dagokionez, 121.artikuluari eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko otsailaren 8an

Blanca María Guerrero Ocejo  
**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**